2. Erakunde laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak zehazten dituen pertsonak hartu behar ditu, hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

3. Erakunde laguntzaileak berezko du egiten duen jarduera eta, beraz, bere jarduneko zerbaitek erantzukizuna badakar, berak bakarrik bereganatuko du. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inolako erantzukizunik izango kontratuaren xede diren lanekin edo zerbitzuekin, edo haren ondoriozkoekin, zerikusia duten auzien ondorioz, ez beste batzuek (langileak barne) aurkezten dituzten erreklamazioen ondorioz, ez eta haien kostuak, auzibide tasak eta abokatuen eta prokuradoreen ogibidesariak ordaindu beharrik ere.

1.- PRINCIPIOS DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO.

1. La Entidad Colaboradora se obliga al resultado de prestar este servicio de acuerdo a lo previsto en el presente Convenio en base a criterios de calidad y rigor técnico en las mejores condiciones posibles, con la debida continuidad, buena fe y diligencia, dirigidas hacia el mejor logro de los objetivos del servicio.

Y adoptará las medidas oportunas para subsanar, en el menor plazo de tiempo posible, las deficiencias trasladadas por el Departamento de Acción Social y para dar cauce a las recomendaciones que este le traslade para la mejora del funcionamiento en relación al servicio convenido.

2. La Entidad Colaboradora acogerá a las personas usuarias señaladas por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo previsto en el presente Convenio.

3. En cuanto que la actividad que desarrolla la Entidad Colaboradora es propia de ella, la responsabilidad derivada del ejercicio de dicha actividad es asumida íntegramente por ella. En consecuencia la Entidad Colaboradora exonerará y mantendrá indemne a la Diputación Foral de Bizkaia de toda responsabilidad derivada de pleitos o de cualquier reclamación planteada por terceros, incluido su personal, así como de cualquier responsabilidad referida a imposición de costas, tasas judiciales o minutas de Abogados/as y Procuradores/as, siempre que tales responsabilidades estén relacionadas directa o indirectamente con los trabajos o servicio objeto del Convenio, o derivados del mismo.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

2. BARNEKO ADMINISTRAZIOAREN BETEBEHARRAK.	2. OBLIGACIONES DE ADMINISTRACIÓN INTERNA.
1. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak erakunde lankideari hitzartutako plazen kostua ordaintzeko, erakunde lankideak hilero, eta aldez aurretik, faktura egokia aurkeztu beharko dio, hitzarmen honetan aurreikusitako klausulekin bat etorriz.	1. Con el fin de que la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social abone a la Entidad Colaboradora el coste de las plazas convenidas, ésta deberá mensualmente y con carácter previo, presentar la factura correspondiente, de acuerdo a las cláusulas previstas en este convenio.
2. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hala eskatuz gero, erakunde laguntzaileak informazio funtzionala, laguntza-informazioa, informazio ekonomikoa eta estatistika-informazioa eman beharko du, kontratatzen den zerbitzuaren jarraipena egin ahal izateko.	A requerimiento de la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social la Entidad Colaboradora habrá de facilitar la información económica y estadística que le sea solicitada para el seguimiento del servicio que se convenia.
Nolanahi ere, gutxienez, sinatutako hitzarmena aplikatu eta hurrengo urteko lehenengo seihilekoan honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:	En todo caso, y como mínimo, presentará durante el primer semestre del año siguiente al de aplicación del convenio suscrito la siguiente documentación:
a) Hitzarmenaren aplikazio-ekitaldiko urteko kontuen auditoriari buruzko txostena.	a) Informe de auditoría de cuentas anuales del ejercicio de aplicación del convenio.
b) Eskainitako zerbitzuaren justifikazio-kontua eta Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribaturiko kontu-auditore baten txostena.	b) Cuenta justificativa del servicio prestado con informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.
Auditorea berraztertzen ari den justifikazio-kontuaren edukia:	El contenido de la cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora será de:
a. Hitzarmena betetzen dela frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adieraziz	a. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento del convenio, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
b. Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa. Honakoak jasoko dira bertan	b. Una memoria económica justificativa de los costes de las actividades realizadas, que contendrá:
• b.1. Jarduerari egotzitako diru-sarreren eta gastuen egoera	• b.1. Un estado de gastos e ingresos imputados a la actividad.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

- b.2. Aurreko puntuko gastuen egoera osatzen duten partida bakoitzeko, jardueraren gastuen zerrenda sailkatu bat, hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, bidalketa data eta ordainketa zehaztuz

- b.2. Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos del punto anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor, del documento, su importe, fecha de emisión y pago.

- b.3. Aurreko b.1 atalean aipatutako zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko irizpideak.

- b.3. Criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b.1 anterior

- b.4 Aurreko b.1 puntuko diru-sarreren egoera osatzen duten partida bakoitzeko jarduera finantzatu duten laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zerrenda, jatorria eta zenbatekoa adieraziz.

- b.4. Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos del punto b.1 anterior, una relación de las ayudas, ingresos o recursos que hayan financiado la actividad, con indicación de su importe y procedencia

- b.5 Erabili gabeko soberakinik badago, diru kopuru hori eta sortu dituen korrituak itzultzeko ordainketa-gutuna

- b.5. En su caso, la carta de pago de reintegro, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos

Hitzarmen honen D. ERANSKIN gisa erantsi da Ogasun eta Finantza Sailak egindako gomendioen dokumentua; bertan, kontu-auditoretza egin duen pertsonaren justifikazio-kontuaren egiaztapen- eta berrikuspen-txostenaren irismena eta edukia jaso da, bai eta justifikazio-kontuaren eredu bat

Se adjunta como ANEXO D al presente convenio documento de recomendaciones elaborado por el Departamento de Hacienda y Finanzas en relación con el alcance y contenido del informe de revisión y verificación de la cuenta justificativa a emitir por la persona auditora de cuentas, así como un modelo de cuenta justificativa.

Nolanahi ere, kontuak auditatzen dituen pertsonak txosten egokia berrikusi eta aurkeztu beharko du, Gizarte Ekintza Sailak dokumentazioa aurkezteko epearen hasieran erakunde kolaboratzaileari igorriko dizkion eranskinetan ezarritik dagoenarekin bat etorriz.

En todo caso, la persona auditora de cuentas deberá realizar su trabajo de revisión y emisión del informe correspondiente conforme a lo establecido en los anexos que el Departamento de Acción Social remitirá a la Entidad Colaboradora al inicio del plazo de presentación de la documentación.

3. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera, erakunde laguntzaileak gertatzen diren altak eta baxak, behin betikoak zein aldi baterakoak, jakinarazi behar dizkio Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, eta zerbitzuaren ohiko jardunean eragina duen bestelako gorabehera guztien berri eman behar dio.

3. De acuerdo a lo establecido en el presente convenio, la Entidad Colaboradora queda obligada a comunicar la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social las altas y bajas, tanto definitivas como temporales, que se produzcan, así como cualquier otra incidencia que afecte al normal desarrollo del servicio.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eskatutako dokumentazioa eman beharko du, oro har, erabiltzaileei, langileei, administrazioari eta abarrei dagokienez, zerbitzuak egoki funtzionatzen duela egiaztatze aldera.

Y, en general, a facilitar cuanta documentación le sea requerida por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia a fin de comprobar la buena marcha y funcionamiento del servicio en lo que afecta a las personas usuarias, personal, administración, etc.

3. BESTE BETEBEHAR BATZUK.

3. OTRAS OBLIGACIONES.

1. Erakunde laguntzaileak aplikatu beharreko arauen arabera aurkeztu beharreko baimen eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetu behar ditu.

1. Corresponde a la Entidad Colaboradora la solicitud y tramitación de todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada en razón de la normativa que le sea aplicable.

2. Erakunde laguntzaileak aplikatu ahal zaizkion zerga, karga eta gainerako guztiak ordaindu behar ditu.

2. La Entidad Colaboradora se obliga al pago de los impuestos, gravámenes, etc. que le sean de aplicación.

3. Erakunde kolaboratzaileak publizitate aktiboari eta informazio publikoa atzitzeko eskubideari dagozkien eginbeharrak bete beharko ditu, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotzen denaren arabera.

3. La Entidad Colaboradora cumplirá con las obligaciones de publicidad activa y derecho de acceso a la información pública recogidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

4. Hitzarmen honekin zerikusia duela kanporanzko proiekzioa duen jarduera, txosten edo argitalpen orotan Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren lankidetzaren berri eman behar da, hau da Aldundiaren izendapena eta logotipoa agertu behar dira (Aldundiaren anagrama), eta hark adierazten duen testua jarri behar da.

4. En cualquier actividad, memoria o publicación que, relacionada con el presente convenio, tenga proyección exterior, se hará constar la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo su denominación y logotipo, siendo éste el formado por el anagrama de la Diputación acompañado del texto que se determine en su momento.

5. Erakunde laguntzaileak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, erabiltzaileekin eta haien senideekin eta arduradunekin dituen harremanetan, Gizarte Ekintza Sailak onetsitako inprimaki elebidunak erabiliko ditu. Bertan, adierazita egongo da zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan dagoela, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzartutako zerbitzua dela.

5. La Entidad Colaboradora, en sus relaciones con la Diputación Foral de Bizkaia, las personas usuarias y familiares encargados/as de las mismas, utilizará los impresos bilingües, aprobados por el Departamento de Acción Social, en los que figure que el servicio forma parte del Catálogo de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y la pertenencia del mismo a la Diputación Foral de Bizkaia como servicio convenido.

Halaber, zerbitzu horren barruan, konpromisoa hartzen du Euskeraren erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta

Asimismo en el marco de este servicio, se compromete al cumplimiento de lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean (VII. kapitulua.- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak) ezarritakoa betetzeko.

de Normalización del Uso del Euskera, y en la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias (Capítulo VII Derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias).

6. Erakunde laguntzaileak hizkuntza modu ez sexistan erabil dezala behin betiko edozein dokumentutan, idatzizkoa nahiz digitala.. Halaber, sortzen den pertsonei buruzko estatistika oron sexukako datuak xehatu beharko ditu, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluaren babesean, izan ere, bertan finkatzen dira errespetatu beharko diren printzipioak. Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 60. artikuluko 4. zenbakiak ezarritakoaren arabera, bere jardueretan 7. artikuluak ezarritako jarduteko oinarriak errespetatu beharko ditu, bereziki, artikulu horren c) letrak araututako berdintasuna eta ekitateari buruzko oinarria.

6. La Entidad Colaboradora hará un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital. Asimismo, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse. Igualmente, de conformidad con lo previsto en el apartado 4 del artículo 60 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, deberá respetar en sus actuaciones los principios de actuación previstos en el artículo 7 , con especial consideración del principio de igualdad y equidad regulado en su apartado c).

Azkenik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluko 1. zenbakiko f) letran ezarritakoarekin bat etorriz, erakundearen antolaketan, funtzionamenduan eta jardueretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren irizpidea agerikoa izan dadin jardun beharko du. Hori dela eta, besteak beste, honako hauek gauzatu beharko ditu: hizkera sexista baztertu, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena eta emakumeen eta gizonen arteko lan-diskriminazioa prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak hartu eta 250 baino gehiago langileko kopurura iristean, Berdintasun Planaren diseinua eta ezarpena egiaztatu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak xedatutakoa.

Finalmente, de conformidad con lo previsto en el artículo 16, apartado 1, letra f, de la ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social, actuará de modo que se observe, efectivamente, en su organización, funcionamiento y actividades el principio de igualdad de trato entre mujeres y hombres. Así, entre otros aspectos, utilizará un lenguaje no sexista, adoptará medidas de prevención y abordaje del acoso sexual y acoso por razón de sexo y de la discriminación laboral entre mujeres y hombres, y, en el momento en que alcance la cifra de más de 250 trabajadoras o trabajadores, deberá acreditar el diseño e implantación efectiva del plan de Igualdad previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

7. Erakundeak konpromisoa hartzen du, ahal duen neurrian arkitektura- eta komunikazio-mugak kentzen laguntzeko, hitzarmen honetan oinarrituta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi eta jardueretan.

7. La entidad convenida se compromete, en la medida de sus posibilidades, a colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en relación con los servicios, eventos o actividades que se organicen relacionados con el presente convenio.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

8. Erakunde laguntzaileak konpromisoa hartzen du, kontrol ekonomikoari dagokionean, hitzarmen honen indarraldian jasotzen diren eta xede bera duten diru-laguntzen edo laguntzen berri emateko Bizkaiko Foru Aldundiari. Jakinarazpenak gastua frogatzeko ezarri diren epeetan egingo dira.	8.- La Entidad Colaboradora se compromete, en orden a un seguimiento económico, a notificar a la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social las subvenciones o ayudas de cualquier tipo que se reciban durante la vigencia de este convenio y que se refieran a su mismo objeto. Dichas notificaciones se efectuarán en los plazos previstos para la justificación del gasto.
9 Aseguruak:	9.- Seguros:
– Erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko du, itundutako zerbitzuen ondoriozko erreklamazioak estaltzeko (are zerbitzuak egiten diren lokalean egiten diren kalteen edota jarduerari atxikitako lokalaren eta ondasunen jabetza edota erabileraren ziozkoak ere); ondokoak hartu behar ditu, gutxienez: jangelen erabileraren ondoriozkoa, lokalaren jabeak hirugarrenekiko duena eta, behar denean, lokalean dagoenak jabearekiko duena; egindako zerbitzu edota lanei dagokiena; kontratistaren erantzukizun subsidiarioa, eta botikak emateagatik, medikuntza-osasun ekintzengatik edo erakunde laguntzaileko langile tituludunek egiten dituzten jarduera guztiengatiko erantzukizuna, hain zuzen zerbitzuan jardutean eta euren betebeharrak betetzean hirugarrenei zuzenean zein zeharka egindako kalteen ondoriozko erreklamazioetatik eta erantzukizunetik babesten dituena.	– La Entidad Colaboradora vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio convenido, un seguro de responsabilidad civil con objeto de asegurar las reclamaciones derivadas de la prestación de los servicios convenidos (incluyendo las reclamaciones por daños al local en donde se presten y/o la derivada de la propiedad y/o uso del local y bienes afectos a la actividad, según corresponda) comprendiendo, como mínimo: la derivada del uso de comedores, la del propietario de un local respecto de terceros y, en su caso, la del ocupante del local respecto de su propietario; la de servicios prestados y/o trabajos realizados; la subsidiaria de contratistas, así como las responsabilidades civiles por administración de medicamentos, actos médicos - sanitarios o cualquier otra actividad del personal de la Entidad Colaboradora para la que se requiera titulación oficial, que asegure sin reservas cuantos daños directos e indirectos y/o consecuenciales puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del Servicio y desarrollo general de sus obligaciones.
Aseguruaren barruan hirugarren batzuen barruan sartuko dira Bizkaiko Foru Aldundia, zerbitzuaren erabiltzaile gisa, eta erakunde laguntzaileko langileak, langile boluntarioak eta, hala dagokionean, azpikontratatzaileak (berauen zerbitzura dauden langileak barne).	Dentro del seguro tendrán también la consideración de terceros tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la persona usuaria del servicio, los empleados, el personal voluntario y, en su caso, los subcontratistas (incluido el personal a su servicio) de la Entidad Colaboradora.
– Aseguruak gutxieneko kalte-ordainaren muga izan behar du: 1.000.000 EURO.	– El seguro será suscrito con un Límite de Indemnización no inferior a 1.000.000 EUR.
–Kopuru horretan sartuko dira, era berean,	– Esta cuantía cubrirá, igualmente, las

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

hirugarren batzuei dagokienez gerta daitezkeen gorabeherak, hain zuzen ere, indarreko araudiarekin bat etorrita eta dagozkionean edo zuzenbidearen arabera bidezkoak diren jardueren bidez, zerbitzua eskaintzen duen erakunde laguntzailearen erantzukizunari egoztekoak direnean.	incidencias que pudieran surgir ante terceros para la totalidad del servicio, en la medida que, con arreglo a la reglamentación vigente y mediante las actuaciones que en su caso o en derecho procedan, sean exigibles a la responsabilidad de la Entidad Colaboradora que presta el servicio.
- Asegurua kontratatu arren, erakunde laguntzailea ez da bere erantzukizunetatik aske geratuko; horregatik, aseguru-etxeak ezarritako ez-betetzeak bereganatu beharko ditu.	– La contratación de este seguro por la Entidad Colaboradora, no le libera de sus responsabilidades por lo que queda obligada a asumir los incumplimientos que la Compañía de Seguros tenga establecido.
– Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak beste aseguru batzuk kontratu beharra ezar dezake, prestazioaren ezaugarriek hori egitea eskatzen dutenean.	– La Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social podrá exigir la contratación de seguros adicionales cuando las características de la prestación así lo requieran.
– Erakunde laguntzaileak eskatutako aseguruak kontratatu dituela eta indarrean daudela frogatu behar du hitzarmena sinatu baino lehen; horretarako, poliza osoaren kopia aurkeztu behar du, eta haiekin batera asegurua indarrean dagoela eta primak ordaindu dituela frogatzen duen ziurtagiria, aseguru-konpainiak emana, edo, bestela, konpainiaren ordainagiriak aseguruen indarraldia frogatzeko.	– La Entidad Colaboradora deberá acreditar la contratación y vigencia de los seguros aquí requeridos antes de la firma del Convenio, aportando copia íntegra de las pólizas y Certificados de las Compañías Aseguradoras donde se acredite la vigencia de los seguros y estar al corriente del pago de las primas de los mismos o, en defecto de esto último, los recibos de las respectivas Compañías Aseguradoras que acrediten dicha vigencia.
10 Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak beteta eduki behar dira, bai eta zerga betebeharrak ere.	10.- Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social, así como de las obligaciones tributarias.
11. Ezin du debeku, ezgaitasun edo bateraezintasunean erori eta eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeko 71. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.	11. No estar incursa en causa de prohibición, incapacidad o incompatibilidad, cumpliendo los requisitos contenidos en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
12. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, IFZ ez galtzea, ez eta behin-behinekoz ere.	12. No perder, ni siquiera con carácter provisional, el NIF durante la vigencia del Convenio.
13. Erakunde laguntzaileak eta hark azpikontratatzen dituen erakundeek itundutako zerbitzua egiteko behar diren langileak kontratatu beharko dituzte. Langileok erakunde horiei soilik atxikita egongo dira; horrenbestez, enpresariei dagozkien eskubide eta betebehar guztiak izango	13.- La Entidad Colaboradora y las Entidades subcontratadas por ésta, si las hubiera, deberán contratar al personal necesario para prestar el servicio convenido. Dicho personal respectivamente dependerá exclusivamente de las citadas Entidades, por cuanto éstas tendrán

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

dituzte eta lanaren arloko, gizarte segurantzaren arloko, laneko segurtasunaren eta higienearen arloko eta laneko arriskuen aurrearretaren arloko indarreko xedapen guztiak bete beharko dituzte, bai eta gizarte prestakuntzaren arlokoak ere azken horiei dagokienez.

todos los derechos y deberes inherentes a su calidad de empresarios y deberán cumplir las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social, de seguridad e higiene en el trabajo y de prevención de riesgos laborales y, con respecto a estas últimas, de formación social.

14. Erakunde laguntzaileak suteen, hutsegite elektriko, uholde eta bestelako ezbehar guztien aurkako segurtasun sistemak antolatu eta mantendu behar ditu. Denetariko arriskuen aurrearretaz eta detekzioaz arduratu behar da eta ezbeharrak onbideratzeko eta larrialdian jendea kanporatzeko sistemak prestatu behar ditu.

14.- La Entidad Colaboradora organizará y se responsabilizará del mantenimiento de los sistemas de seguridad contra riesgos tales como incendios, fallos eléctricos, inundaciones y, en definitiva, todos aquellos en sus aspectos de prevención, como de detección, extinción y evacuación.

15. Halaber, erabiltzaileen eta langileen segurtasun integralaz arduratuko da; horretarako laneko arriskuen aurrearretarako plana idatzi behar du indarreko legeriaren arabera.

15.- Asimismo, se responsabilizará de la seguridad integral de las personas usuarias y empleadas. A tal efecto, redactará el correspondiente Plan de Prevención de Riesgos Laborales conforme a la legislación vigente.

16. Erakunde laguntzaileak bere gain hartuko du zerbitzua egiteko jarduketengatik langileek, zerbitzua jasotzen dutenek edo gainontzekoek jasaten dituzten ezbeharren edo kalteen erantzukizuna.

16.- La Entidad Colaboradora asume la completa responsabilidad de los accidentes o perjuicios que pudieran ocurrir a su personal, a las personas atendidas o a terceras personas, como consecuencia de las actuaciones que requiere el desarrollo del servicio.

17. Erakunde laguntzaileak konpromisoa hartu du zerbitzua egiteko azpikontratatzen dituen erakundeei aurrean adierazitako betebehar guztiak betearazteko.

17.- La Entidad Colaboradora se compromete a exigir el cumplimiento de las obligaciones anteriormente indicadas, a las Entidades subcontratadas para la prestación del servicio.

HAMABIGARRENA.- ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK.

DECIMOSEGUNDA.- OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDADES DE LA ADMINISTRACIÓN.

1. Gizarte Ekintzak Sailak jarriko du A A Erasnskineko 8. apartatuan ezarritako zenbatekoa. Kantitate hori Hitzarmen horren xeden diren jarduerak finantzatzeko erabiliko da, Hitzarmen honetan jasotako aurreikuspenen arabera.

1. El Departamento de Acción Social aportará el importe fijado en el apartado 8 del Anexo A. Dicha cantidad se destinará a la financiación de las acciones objeto de ese Convenio, de acuerdo con las previsiones recogidas en el presente Convenio

2.Gizarte Ekintza Sailak etengabe zerbitzuaren ikuskapen, kontrol, jarraipen eta ebaluazio lanak egin behar ditu, haren kalitatea eta aurreikusitako emaitzen lorpena bermatzeko. Horretarako,

2. El Departamento de Acción Social ejercitará la labor de inspección, control, seguimiento y evaluación permanente de la prestación del servicio a fin de garantizar la calidad de los

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

zerbitzua ondo ari dela egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu behar ditu, hain zuzen ere erabiltzaileei, langileei, administrazioari eta beste alderdi batzuei buruzko agiriak.	mismos y el logro de los resultados previstos. A tal fin, se obliga, igualmente, a requerir cuanta documentación estime oportuna para comprobar la buena marcha y funcionamiento del servicio en lo que afecta a las personas usuarias, personal, administración, etc.
Horretaz gain, erakunde laguntzaileak hitzarmen honetan jaso diren antolaketaren kudeaketari buruzko betekizunen betearazpena bermatzeko beharrezkoak diren aldizkako kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatuko ditu; eta arretaren kalitatean eragina izan dezaketenei arreta berezia eskaini beharko die. Xede horretarako ere, egokitzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu beharko ditu.	Asimismo, promoverá los mecanismos de control y evaluación periódicos necesarios para garantizar el cumplimiento por la Entidad Colaboradora de las obligaciones previstas en el presente convenio relacionadas con la gestión de la organización prestando especial atención a aquellas que puedan afectar a la calidad de la atención. Y, a tal fin se obliga, igualmente, a requerir cuanta documentación estime oportuna.
3. Administrazioak zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko bidezkotzat jotzen dituen denetariko gomendioak emango dizkio erakunde laguntzaileari, eta antzematen dituen akatsen berri emango dio, ahalik eta lasterren konpon ditzan.	3. La Administración trasladará a la Entidad Colaboradora todo tipo de recomendaciones que estime oportunas para la mejora de su funcionamiento, así como a poner en su conocimiento cualquier deficiencia observada para su subsanación en el menor plazo de tiempo posible.
4. Bizkaiko Foru Aldundiak (Gizarte Ekintza Saila) erabiltzaileak finantzatu beharreko ehunekoa finkatuko du indarreko arautegiaren arabera.	4. La Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social fijará el porcentaje de financiación de las personas usuarias de acuerdo a la normativa vigente.
5. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak ebatziko ditu erabiltzaileak zentroan sartzeko eskabideak, BEDERATZIGARREN klausulan ezarritakoa betez. Ingresatutako pertsonen lekualdatze eta bajen kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak erakunde laguntzaileari entzungo dio, erabakia hartu aurretik.	5. La Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social resolverá sobre el ingreso de las personas usuarias de acuerdo a lo dispuesto en la cláusula NOVENA. En caso de traslados y bajas de las personas ingresadas la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social, con carácter previo a la resolución oirá a la Entidad Colaboradora.
6. Baldin eta Bizkaiko Foru Aldundia ohartzen bada gastua frogatzeko emandako agirietan zerbait gaizki dagoela, dagozkion kopuruen ordain-agindu ekonomikoa eten egingo da.	6. Si desde la Diputación Foral de Bizkaia se observaran irregularidades de cualquier tipo en los documentos justificativos del gasto, el libramiento económico de las cantidades correspondientes quedará en suspenso.
7. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hilero ordainduko dio erakunde kudeatzaileari, faktura aurkeztu ondoren, egindako zerbitzuaren kostua, hitzarmen honetan dauden zehaztapenen arabera.	7. El Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia abonará mensualmente a la Entidad Colaboradora, previa presentación de la correspondiente factura, el coste del servicio realizado, de acuerdo a las

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

cláusulas previstas en este convenio.

HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA ORDAINKETA.

a) Indarraldia.

Hitzarmen hau, atzeraeraginezko ondorioekin, 2022ko urtarrilaren1etik 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Aurrekoa gorabehera, indarraldia amaitu aurretik alderdiek, elkarrekin adostuta hitzarmena luzatzea erabaki dezakete, hasierako iraupen-epearen berdina den aldi baterako, alderdi batek 3 hilabete lehenago hitzarme na berariaz eta modu sinesgarrian salatu ezean.

b) Ordaintzeko era.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hilero ordainduko dio erakunde kudeatzaileari, faktura aurkeztu ondoren, egindako zerbitzuaren kostua, hitzarmen honetan dauden zehaztapenen arabera.

Horrela, A. eranskineko (hitzarmenaren karatula) 7. zenbakian zehaztutako prezioaren % 100ean ordainduko dira honako hauek:

- Benetan okupatuta dauden plazak.

- Gehienez ere, 15 eguneko epean okupatuta ez dauden plazak, bajak berehala betetzeko zailtasunak direla eta.

- Aipatutako 15 eguneko epea amaituta bete gabe dauden plazak, soil-soilik Foru Aldundiari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik bada.

Aurreko kasuetan ez dauden okupatu gabeko plazak ez dira ordainduko.

DECIMOTERCERA.- VIGENCIA DEL CONVENIO Y FORMA DE PAGO.

a) Vigencia.

La vigencia del presente Convenio se extenderá, con efectos retroactivos, desde el 1 de enero de 2022 hasta 31 de diciembre de 2023.

No obstante lo anterior, antes de la finalización del plazo, se podrá acordar de mutuo acuerdo una única prórroga por un periodo igual al de su plazo de duración inicial, salvo que cualquiera de las partes denuncie expresa y fehacientemente el mismo con una antelación mínima de 3 meses.

b) Forma de pago.

La Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social abonará mensualmente a la Entidad gestora, previa presentación de la correspondiente factura, el coste del servicio realizado, de acuerdo a las especificaciones indicadas en este Convenio.

Así, se abonarán al 100% del precio especificado en el apartado 7 del Anexo A – Carátula del Convenio:

- Las plazas que se encuentren realmente ocupadas.

- Las plazas no ocupadas durante un plazo máximo de 15 días en razón de las dificultades que puede suponer la cobertura inmediata de las bajas.

- Las plazas no ocupadas, una vez trascurridos los 15 días anteriores únicamente cuando la falta de ocupación se deba a causas imputables a la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Acción Social).

No se pagarán las plazas no ocupadas que no se encuentren en ninguno de los supuestos

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

recogidos en los apartados anteriores.

Nolanahi ere, ordaintzeko modua aldatu ahal izango da; betiere, finantzen oreka mantentzearen katerik gabe.

Esta forma de pago podrá ser objeto de variación sin perjuicio del mantenimiento del equilibrio financiero.

Hizpatutako kopuruak ordaindu ondoren, erakunde laguntzaileak ezin eskatu izango du beste diru-kopururik mantentze-lanengatik, aparteko zerbait gertatu ezean. Halakoetan ere, lehenbizi Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari jakinarazi behar zaio eta apartekotasuna frogatu beharko da, eta gero Aldundiak, onartuz gero, kopuruak ordainduko ditu, aplikatu beharreko arauekin bat etorriz.

Una vez abonadas las cantidades estipuladas, la Entidad Colaboradora no podrá reclamar en concepto de mantenimiento ninguna otra cantidad, salvo que sobrevinieren circunstancias excepcionales que, comunicadas y justificadas con carácter previo, sean expresamente aceptadas por la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social, de acuerdo a la normativa aplicable.

HAMALAUGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK.

1. Hitzarmen honetan ezarritako azkentze arrazoiez gainera hitzarmena aldez aurretik azkenduko da ondoko kasuetan ere:

- a) Hitzarmenaren indarraldia haren luzapena erabaki barik igarotzea.
- b)Sinatzaile guztiek aho batez erabakitzea.
- c)Sinatzaileetakoren batek bere gain hartzen dituen eginbeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

DECIMOCUARTA.- CAUSAS DE EXTINCIÓN.

1. Además de las causas previstas en las cláusulas del presente convenio, serán causas de extinción las siguientes:

- a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.
- c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.

Kasu honetan, alderdietako edozeinek agindeia jakinarazi ahal izango dio sinatutakoa betetzen ez duen alderdiari, epe jakin batean betegabetzat jotzen diren eginbeharrak eta konpromisoak bete ditzan

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos.

Agindei hau hitzarmena burutzeko jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta hitzarmena sinatu duten gainerako alderdiei.

Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.

Baldin eta agindeian adierazten den epea igaro eta ez-betetzeak irauten badu, agindeia igortzen duen alderdiak hitzarmena suntsiarazteko kariak

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

gertatzen direla jakinaraziko die alderdi sinatzaileei, eta hitzarmena azkendu egin dela ulertuko da.	firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio.
Hitzarmena arrazoi hori dela eta suntsiarazteak sortutako kalteen ordaina eman beharra ekar dezake. Edozelan ere, alderdi biek adostasunez adostuko dituzte suntsiarazpen honek erabiltzaileei ahalik eta kalterik txikiena sor diezaien egin beharreko jarduketak.	La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados. En todo caso, ambas partes, por mutuo acuerdo acordarán las actuaciones a realizar para garantizar que esta resolución implique el menor perjuicio posible a las personas usuarias.
d) Hitzarmenaren deuseztasuna adierazten duen epai-erabakiaren zioz.	d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.
e) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita dagoen eta arestion aipatutakoen bestelakoa den beste edozein kariren zioz.	e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.
Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 4072015 Legearen 52 artikuluak ezartzen duen bezala, hitzarmena betetzearen eta suntsiaraztearen ondorioz, likidazioa egingo da, helburua delarik alderdi bakoitzaren obligazioak eta konpromisoak zehaztea.	El cumplimiento y la resolución del convenio darán lugar a la liquidación con el objeto de determinar las obligaciones y los compromisos de cada una de las partes, de acuerdo con lo que establece el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público.
2. Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 59.1 artikuluan ezarri denaren arabera, ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatuta egoteaz gainera, baimen administratiboa behar dute gizarte zerbitzuak egiteko eta hornitzeko, eta gainera euren izaeraren eta motaren araberako betekizun materialak, funtzionalak eta pertsonalekoak bete behar dituzte.	2. A tenor de lo dispuesto en el Art. 59.1 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, las entidades de iniciativa privada requerirán, además de su inscripción en el Registro de Servicios Sociales, la correspondiente autorización administrativa para poder intervenir en la provisión y prestación de servicios sociales, previo cumplimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal que les correspondan en función de su naturaleza y tipología.
2. idatz-zatian ezarri da erakunde pribatuek, behar bezala inskribatuta eta baimenduta egoteaz gainera, homologazioa behar dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako gizarte zerbitzuetan aritzeko.	Asimismo en su apartado 2 establece que las entidades privadas, debidamente inscritas y autorizadas, requerirán la previa homologación para intervenir en la prestación de servicios sociales integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
Azkenik, 59.3 artikuluan ezarri da homologatzea aldez aurreko ezinbesteko betekizuna dela herri administrazioek erakunde pribatuak kontratatu ahal izateko gizarte zerbitzuak egiteko, bai eta horretarako itunak egiteko ere. Nolanahi ere, homologazioa lortzeak ez dakar berekin ituna ez	Por último el artículo 59.3 dispone que la previa homologación constituirá un requisito preceptivo para que una entidad privada pueda concertar contratar, o, en su caso, convenir la provisión de servicios sociales con una administración pública. En todo caso, la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

kontratua eskatzeko eskubidea, ezta lankidetza hitzarmena ere.

obtención de la homologación no otorga el derecho a exigir ni la concertación ni la contratación, ni, en su caso, el convenio de colaboración.

Egun oraindik homologazio arautegirik ez dagoenez, hitzarmen hau zuzenbideari lotzen zaiola ulertuko da eta, beraz, beronen xede diren zentroa eta zerbitzua organo eskudunak homologaziorako gutxieneko eta baterako baldintzez noizbait ematen dituen arauetara ez moldatzea hitzarmena suntsiarazteko kausa izango da.

No existiendo a fecha actual la citada normativa de homologación se entiende ajustado a derecho el presente convenio, siendo causa de resolución del mismo, la no adaptación del Centro y servicio objeto del presente convenio a la futura normativa que emane del Órgano Competente, relativa a las condiciones mínimas básicas y comunes aplicables a la homologación.

3. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 67. artikuluko 3. zenbakiak ezarritakoari men eginez, hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak ziurtatu beharko du hitzartutako zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaileen eskubideek kalterik jasango ez dutela hitzarmenaren amaieraren ondorioz.

3. De conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 67 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, una vez finalizada la vigencia del convenio, por la causa que fuere, el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia deberá garantizar que los derechos de las personas usuarias de las prestaciones y servicios convenidos no se vean perjudicados por la finalización del convenio.

HAMABOSGARRENA.- HITZARMENAREN ALDAKETA.

DECIMOQUINTA-MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

Alderdi sinatzaileek edozein unetan aldatu ahal izango dute hitzarmen honetan ezarritakoa, alderdien artean adostuta.

Las partes firmantes podrán modificar los términos del presente convenio en cualquier momento, de mutuo acuerdo.

HAMASEIGARRENA.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

DECIMOSEXTA.- JURISDICCIÓN COMPETENTE

Hitzarmen honen interpretazioaz, aldarazpenaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez auzirik sortzen bada, organo eskudunak ebatziko du. Organo horren ebazpenak administrazio-bidea agortuko du eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusian, jurisdikzio hori araupetu duen legean xedatutakoarekin bat etorriz. Alderdiek uko egin behar die gainerako foru guztiei.

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre interpretación, modificación, resolución y efectos de este convenio, serán resueltas por el Órgano competente, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción, ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que a las partes pudiera corresponder.

Nolanahi ere, legez bidezkotzat jotzen diren errekurtso guztiak balia daitezke.

Sin perjuicio de lo que antecede, podrá ejercitarse cualquier otro recurso que se estime

Elektronikoki sinatutako dokumentua. LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) LZWZ-QDRR-LR56-ZMK1 en www.ebizkaia.eus.

ante la Ley.

HAMAZAZPIGARRENA.- HITZARMENAK EBALUATZEKO ETA JARRAITZEKO BATZORDE MISTOA.	DECIMOSÉPTIMA.- COMISIÓN MIXTA DE EVALUACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LOS CONVENIOS.
Batzorde misto bat sortu da, osaera paritariokoa, lankidetza-hitzarmen honen garapenean koordinazio egokiaz eta haren exekuzioa kontrolatzeaz arduratuko dena.	Se crea una Comisión Mixta, de composición paritaria, que será la responsable de procurar la adecuada coordinación en el desarrollo de este convenio de colaboración y de controlar su ejecución.
Erabakiak alderdien arteko adostasunez hartuko dira. Batzordea lau pertsonak osatuko dute, alderdiek bina pertsona izendatuta.	Las decisiones de la Comisión se tomarán por consenso entre las partes. Esta comisión estará constituida por cuatro personas, dos nombradas por cada una de las partes.
Batzordea urtean behin, gutxienez, batzartu daiteke. Hauek izango dira batzordearen eginkizun nagusiak:	La Comisión podrá reunirse, al menos, una vez al año y sus funciones generales serán:
a) Alderdien konpromisoak direla-eta sortzen diren interpretazio-zalantzak argitzea.	a) Resolver las diferencias de interpretación que pudieran surgir respecto de los compromisos de cada una de las partes.
